

COVID-19A DELA ETA ZIZURKILGO GAZTEZULON PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRAK ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO DOKUMENTUA

Dokumentu honek jasotzen ditu parte hartzeko baldintzen, informatzeko betebeharren eta baimen informatuaren onarpena eta Zizurkilgo Gaztezulo Udal/Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuak garatu eta gurasoek zein legezko tutoreak ezagutu eta sinatu behar dituzten beste eredu batzuk.

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Zizurkil Gaztezulo Udal/Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuak **Parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharrak eta baimen informatua onartzeko dokumentu** hau proposatzen du, gure zerbitzuen erabiltzaile eta gurasoentzat. Gainera, Udal/Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Osasun-agintaritzak une bakoitzean zehazten dituen protokoloak edota jarraibideak aplikatzea.
- Dokumentu honetan azaldutako neurri orokorrak sartzea.
- Indarrean dagoen legeriaren beste alderdi egoki batzuk sartzea

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEA

Udal/Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuak eskainitako jardueran parte hartu nahi dutenek alde zuzenetik adieraziko dute, idatziz, parte hartzeko honako baldintza hauek onartzen dituztela:

1. Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldeetako kide batekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena

Parte-hartzailea arrisku-talde bateko kide da honako kasuetan:

- Parte-hartzaileak ez du Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuaren jardueran parte hartuko COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia bada (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak ez du Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuaren jardueran parte hartuko baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin, sintomarik ez badago ere, pertsonen arteko distantzia gorde gabe leku berean egon bada, gutxienez 14 eguneko tartean. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.



626 623 107 (Ane)

- Parte-hartzaileak Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuaren jardueran parte hartu dezake, baina ez luke parte hartu behar, baldin eta zaurgarria bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada 60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunoeskasiak, edo haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik. Parte hartzea erabakitzen badu, berak edo bere senideek duten arriskua jasota utziko du baimen informatuan.

2. Osasun-egoera eta ez joateko arrazoia jakinarazteko konpromisoa

- Parte-hartzaileek egunero jakinaraziko diote beren osasun-egoera beren taldeko hezitzaile arduradunari, jardueran hasi aurretik.
- Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuaren jardueran parte hartu duen pertsonaren batek COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu, ez da joango eta bere, Udal/Haurtxoko/PSZ/Gaztelekuko arduradunarekin (Udal teknikaria, koordinatzailea, hezitzailea, etab.) harremanetan jarriko da.

3. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartzea (Izen emate orria)

4. Baimen informatua sinatzea (Izen emate orria)

5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik kalteberak diren taldeek parte hartzeko baldintzak

- Desgaitasunen bat edo premia bereziren bat, ahultasun sozioekonomikoren bat, etab. duten pertsonekin, arreta espezifikoko neurriak hartuko dira: pertsona bakoitzeko hezitzaile gehiago dituzten talde txikietan lan egitea edo hezitzaile laguntzaileak jartzea, agindutako babes-ekipoak hornitzea, etab., jardueran haien erabateko parte-hartzea bermatzeko.
- Gurasoek edo legezko tutoreak egoera horren berri emango diote jardueraren ardura duen erakundeari, moldatzeko neurri egokiak hartu ahal izan ditzan.